

## EPE 2016/2017 euskararen Hizkuntz Eskakizunak egiaztatzeko probak

2018ko azaroaren 2koa, Euskal Herriko Unibertsitatean lan kontratudun langileak sartzeko hautaketa prozesuen oinarri orokorrak argitaratzen duen Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen Ebazpenean 8.3garren<sup>1</sup> oinarri orokorrean zehaztutakoarekin bat eginik, oposizio-fasea gainditu duten lehiakideei jakinarazten zaie euskara-proba idatziak (ulermen idatzia eta adierazpen idatzia) **2020ko urriaren 2an** egingo direla, jarraian aipatzen den lekuan:

### Elbira Zipitria zentroa ([esteka](#))

UPV/EHUko Gipuzkoako Campusa  
Ondarreta pasalekua, 18 - 20018 Donostia

Probak egun eta ordu hauetan egingo dira:

- . 1. hizkuntza-eskakizuna **13:00etan**
- . 2. hizkuntza-eskakizuna **10:45etan**
- . 3. hizkuntza-eskakizuna **08:15etan**
- . 4. hizkuntza-eskakizuna **12:45etan**

**Ohar garrantzitsua: azterketa-ordua baino 15 minutu lehenago bertaratzea komeni da.**

- Azterketariak ekarri beharrekoak:

- ✓ **Maskara**
- ✓ **Boligrafoa**

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak oposizio-fasea gainditutakoek soilik egin ahalko dituzte baldin eta hizkuntza-eskakizuna aurretik egiaztatuta ez badute edo titulu baliokiderik ez badute. Etsamina kanporagarria izango da, hau da, ahozko etsamina egitera, idatzizko etsamina gaindituko luketen izangaiei beste inori ez zaiola dei egingo, behar bezala iragarriko den datan.

Deitutakoen zerrenda Lan-eskaintzen atarian ikus daiteke

AZPkoen Hautaketa eta Hornikuntza  
UPV/EHUko PERTSONALEKO GERENTEORDETZA

<sup>1</sup> Euskara (8.3. oinarria)

Euskara azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da hizkuntza eskakizunerako derrigortasun data gaindituta daukaten plazen kasuan, eta borondatezkoa eta ez baztergarria bestelako plazetarako. Euskara azterketa nahitaezkoa eta baztergarria denean, azterketa gainditzen ez duten hautagaiek edo azterketa egiten ez dutenek aurrera jarraituko dute hautaketa prozesuan, baina derrigortasun datarik ez daukaten plazetan lehiatuko dira.

Hizkuntza eskakizuna UPV/EHUn egiaztatuta dutenek, ez dute berriz ere egiaztatu behar.

COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz, IVAPek 2020ko martxoaren 13an bertan behera utzi zituen data horretatik aurrera abian edota aurreikusita zeuzkan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdi bateratuak.

Gaur egun, osasun-agintariek dekretatutako larrialdi-egoeratik ateratzear gaudela, IVAPek berriro ekingo dio deialdiak antolatzeari. Horretarako, indarrean dagoen araudiak ezartzen edo gomendatzen dituen segurtasun-neurriak kontuan hartuta, azterketen aplikazio eta zuzenketarako protokolo bat ezarri da, eta webgune honetan eskuragarri dago. Protokolo horretan zehazten da hautagaiak derrigorrez bete behar dituzten babes-neurriak:

- Norbera babesteko ekipamendua (NBE): Hautagaiak maskara eraman behar dute, azterketa-tokira sartzeko eta azterketa egiteko.
- Hautagaiak boligrafoa eraman behar dute.
- Gela guztietan gel hidroalkoholikoa egongo da hautagaien eskura.
- Ahal dela, denbora osoan 2 metroko distantzia gordeko da, hautagaien artean zein hautagaien eta aztertzailen artean.

Bestalde, azterketak ere osasun-egoera berrira egokituko dira. Entzumena mintzamen-saioarekin batera neurtuko da, berariazko entzumen probarik egin gabe. Eta idatzizko azterketaren egitura izango da taula honetan zehazten dena:

	IRAKURMEN PROBA		IDAZMEN PROBA		DENBORA GUZTIRA
	Ariketa kopurua	aurreikusitako denbora	Ariketa kopurua	aurreikusitako denbora	
1.HE	2 ariketa	30 minutu	Ariketa bakarra	30 minutu	1 h
2.HE	2 ariketa	30 minutu	Ariketa bakarra	40 minutu	1 h 10 m
3.HE	2 ariketa	35 minutu	Ariketa bakarra	50 minutu	1 h 25 m
4.HE	2 ariketa	40 minutu	Ariketa bakarra	60 minutu	1 h 40 m